



BARREN

TOKIKOM

# Gailurrean





## GOIMEK S.COOP

HONAKO HAU BEHAR DA:

# TORNU BERTIKALEKO LANGILEA

### FUNTZIOAK:

- Tornu bertikala erabiltzen jakitea, arbastatze eta akaberako eragiketarako egiteko.

### ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC programazioa ezagutzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

### ESKAITZEN DA:

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2016ko urriaren 12a baino lehen.**

Interesa dutenek Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien curriculumak: [ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)

## GOIMEK S.COOP

HONAKO HAU BEHAR DA:

# FRESATZAILE MANDRINATZAILEA

### FUNTZIOAK:

- Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorrekoko makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketarako eta baita akaberakoetan esperientzia izatea.

### ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC menperatzea, eta Heinden-hain ezagutzea baloratuko da.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

### ESKAITZEN DA:

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2016ko urriaren 12a baino lehen.**

Interesa dutenek Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien curriculumak: [ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)



IBON SERRANO LASA



## “EAEko etsipen eta identitate hutsaltzearen arrazoi bila ibili naiz”

**A**rkadi, uda Nafarroan igaro eta sinestezina gertatu zait; alegia, herrigintzari buruzko nire ezkorkeria alboratu eta botila erdi beteak dakusat orain. Halere, fio ez eta zientzia bidelagun, Mengele & Vallejo Najera doktoreek inspiraturiko ikerketa lobotomikoa egin dut (*Journal of neurosociologyn publikatua*):

Zehazki, EAEko etsipen eta identitate hutsaltzearen arrazoi bila ibili naiz, Nafarroakoaz alderatu ahal izateko.

Lehenik, [www.chernoby-online.com](http://www.chernoby-online.com)-en ondorengoez hornitu naiz:

Mychrotus Ochrogaster laborategi sagua (Nicolai, liturgia ortodoxoan bataiatua).

1968ko INTELLEKTOR konputagailu sobietarra.

Orratz dermiko, elektrodo, kable neurologiko sorta.

Lau puntu kardinalaz estanpaturiko alfonbra.

Jarraian, Nicolaiaren hipotalamoia “euskokultura” dei dakiokkeen informazio multzo desberdinez bonbardatu (*Yottabyte*) eta portera aztertu dut.

Emaitzak:

1. EAEn bi patroiz nagusitu dira (bakoitza ildo abertzale jakin batekin lotua omen?).

1.1. Nicolaik hegora apuntatu du.

Diagnosia: “Terolismoa”.

Euskaldunon umore faltaren aitzakiaz osatutako olatu mediatiko geldiezin. Obsesioak: 5. mailako ikurrak, pintxoak, Puppy eta sevillarrekiko anaitasun beharra.

Ondorioa: Erregionalizazio “osasuntsua”.

1.2. Nicolai akitu arteko jirabiran.

Argi&garbi: “Porrotismoa”.

30M jainkoen *Mahabharata* panteoi hindua bailitzan, zio galdu oro beregain hartzen duen anabasa kaleidoskopikoa. Zorabio, asperdura eta nekea dakarren lehentasunik gabeko amalgama koloretsu haluzinagarria.

Horren lekuko Nicolaik bere neurohipnosian ukrainieraz errana (nik itzulia):

- *Burusoilen eskubideak ere aldarrika ditzagun. Txokoa genuke “Baratzea & barea, ze parea”, “transhemafroditismo askea” eta “mikro-herrixken subirautza orain” egitasmoen artean. Ah! eta lagun bekainbakarren bat bazenu, gureganatu baita mesedez!...*

2. Nafar metadatuez bonbardaturik berriz: sagua iparrera zuzen tenkatu da!

Nicolai itaundu eta azken urteotako lan eskergea aipatu du, jarduera anitzetan gauzatu, baina betiere historia eta identitatea ardatz. Zendutako Juanito Celaya ere gorapatu du.

*Mon ami*, zuzen&egoki genuke Nicolaiaren sufrikarioaz kausitu.



ARKAITZ IRURETA ARRIETA

## “Ni ere ilea erabiltzen hasi naiz erabakitze eskubidea gauzatzeko”

**I**bonset, ez duzu sinistuko, baina jendeak irakurtzen ei gaitu! Ez dakizu zenbat etorri zaizkidan Txiki Egunean eurekin irten behar naizela esanaz, ondo pasatuko dudala esanaz. Akaso Nicolaik bezela Vallejo-Najeraren ondorengoen eskuetan jarrita, albedan horditurik, errebeldia aspergarri honetatik aska naiteke.

Egiari zor, zure estiloa asko gustatu zaiela esaten etorri zaizkit gehienak. Badaukat zer ikasi!

Ni ere hemen inguruko ikerketa batez gogoratu naiz. Bailarako mendi batetara igo eta teknika txamaniko bat erabiliz, hipotalamoia gogartearen bitartez askatzen joan ziren. Horrek energia kolektiboaren indarra ikustera eraman zituen. Kasu honetan, ENIAC konputagailuarentzat propio eginiko iman bidezko aparailu batez kontrastatu ahal izan zuten energia guzti hori.

Ikerketaren punturik gorenean, suprakontzientzarekin komunikatzea lortu zutenean, argitasun ikaragarri batek hartu zituen par-

taide guztiak. Kolektibo osoaren indarra zegoen guztiaren gainetik. Dena erabakia zegoen. Santutegiaren indarra hain zen handia ez zeukatela ezer pentsatzeaz arduratu beharrik. Orduetik, herri horretan gizonek bibotea daukate, eta ardura bakarria bibotearen tamaina eta estiloa aukeratzea da. Gatazkarik ez dagoenez, erosotasunaren gorena ukitzen da bertan.

Elgoibarrera esportatu nahi izan dugu esperientzia hori, eta ni ere ilea erabiltzen hasi naiz erabakitze eskubidea gauzatzeko. Nicolaik ukrainieraz adierazitakoarekin bat nator beraz. Beste guztia erabakita dagoenez, burusoil eta bekainbakar izateko eskubidearen alde borroka dezagun, lagun! Uste dut ulertu dudala zure tesiaren sintesia, baina loturaren bat falta dela iruditzen zait, sokadantza ere aldatzen ari omen da-eta. Badaukagu hurrengo ZB baterako gaia. Eta gaiz aldatzen, nolatan ez genuen jai hartu Vueltako txirindulariak ikusteko?



MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria

## Izan zitekeen erraldoia

kundea eta garapena mendebaldeko gizarteekiko parekatzetatik ulertzekotan, klase ertainen eraketak denbora behar duen prozesua da. Hor lorpen txalogarriak baditu, aldarri hori hartuta iritsi baitzen agintera Lula da Silva, Hegoamerikako diskurtso politikoa gidatuz, errenta ezberdintasunak basatienak ziren herrialdean. 13 urtetan 40 milioi pertsona muturreko pobreziatik irten dira, lurpeko ekonomiatik ihes egiteko irrikitan, baina mundu mailako morrontza gurpilean sartzeko; lan kaskarrena, zerbitzu sare hutsalena.

Mendebaldeko herrialdeen ikuspegitik, merkatu amaigabeen gose, potentzia izatetik urrun dago Brasil. Kosteak asko igo dira, eraginkortasuna

ez ordea. Protekzionismo itsuak industria larri zauritu du.

Petroleoa eta beste hainbat natur baliabide ugari izateak diru iturri oparoak eta ziurrak dakartza; aitzitik, haiekiko dependentzia ezin uxatuz, ekonomiaren egituraketa osasungarri baterako bidea lausotzen dio, Brasili eta beste hainbati.

Indar demografikoa ere aberastasun aparta da, biztanleria gazte eta arraza ezberdinen bultzadaz. Baina gizakiaren alderdi ilunak gailentzen dira beste behin, lukurreria dela, ustelkeria dela. Egungo legebiltzarkideen erdiak epaitegietan auziak argitzeke dauzka. Gaizki egindakoetatik ikasiz etorriko dira garai hobe eta orekatuagoak.

olinpiar Jokoek Brasil munduaren ikusmiran jarri duten hontan ezin esan distirak txunditu gaituenik, krisi ekonomikoak eta politikoak erasanda. Infrazioak, langabeziak eta zorrak lur jota daukate berez gorabeheratsua den ekonomia. Izan zitekeen erraldoia da Brasil, zitekeena eta ez dena.

BRIC deitutako herrialdeak larri dabil-tza orohar, norbera bere mixeriekin. Haz-

*“Gizakiaren alderdi ilunak gailentzen dira beste behin, lukurreria dela, ustelkeria dela”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► DEBABARRENAKO II. RAID-A

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu Debabarrenako II. Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udala, Kirol Patronatua, Udaltzaingoa, Udaleko brigadako langileak, Debegesa, Debemen, Danobat, Alcorta, Iriondo Kirolak, Astigarraga, GoBike, Bizkor, Pitxintxu, Txarriduna, Beristain, Mauxitxa gaztak, Ainhoa Fisioterapia, Fisio & más, Jassone inprenta, Eroski, Kaiku eta DYA.

Eskerrak ematen hasita, ezin ahaztu Elgoibarko plazan, jumar eta tirolina probak posible egin dituzten Josu Merino, Anex Retana eta Unai Garate;

Proba hauetarako, elizako ateak zabaldu eta laguntza eman diguten Benantzio Otaegi eta Carmelo Loiola; Arrateko tiro proba antolatu duten Miren Mujika eta Jose Luis Garaizabal; Etengabe argazkiak ateratzen ibili den Manolo Sanchez; Parte hartzaileek igarotako lur sailen eta baserrien jabeak, bereziki Aubixako Maritxu, bere esker on eta laguntzagaitik; Bazkaltzen eman diguten Sanlobeer feriako arduradunak; Muntaketan lagundu digun Gorka Garaizabal eta aipatu gabe geratu diren beste hainbat boluntario.

Bigarren raida antolatzea lehenengo antolatzea baino errezagoa izan bada ere, beti daude hobetu beharre-

koak. Horiek kontuan hartuta, datorren urtean ere saiatuko gara antzerako raid bat antolatzen. Hurrengo urtera arte!

**Debabarrenako II Raid-aren antolatzaileak**

### ► OHARRA

Urriak 7, ostirala, jai eguna delata, datorren asteko aldizkaria urriaren 6an banatuko dugu, egunean. Ale horretan edozein informazio sartu nahi izanez gero, astearte eguerdirako ekarri beharko duzue BARREneko erredakziora.

BARREN

# URRIAK 1, LARUNBATA

# STOCK FERIA

**2016**

14:00etan

---

Zozketa 600€\*

\* Saria eskuratu ahal izateko, saritutako txartela Maala parkean egon beharko da zozketa unean.

## MAALA PARKEA ELGOIBAR

**10:00** ETATIK  
**14:30** ERA



Antolatzailea  
**TXANKAKUA**  
ELGOIBARKO MERKATERIK



Laguntzailea  
**elgoibar**  
UDALA



Babeslea  
EUSKO JAILERGIETAN  
SOBERANO VASCO  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONOMICO Y COMPETITIVIDAD

## Sanlobeer festaren balorazio positiboa egin dute Sanloko arduradunek



Sanlok antolatuta, Sanlobeer garagardo feria egin zuten joan zen asteburuan Elgoibarren. Eguenetik domekara hainbat ekitaldi izan ziren Maalako parkean jarri zuten karpan, eta arduradunek esandakoaren arabera, barixakutik domekara bitartean jende asko pasatu zen karpantik. Asteburuko otorduetan jendetza handia batu zen, eta domekan, esaterako, 200 paella razio banatu zituzten. Lau egun horietan hainbat musika taldek hartu zuten parte festan, eta arduradunek esan dute giro "oso atsegina" sortu zela horri esker.

Era berean aipatu dute Bingo Solidarioari esker 600 euro batu dituztela elikagaien bankurako, eta eskerrak eman nahi dizkiete bingoan parte hartu zuten guztiei. Oro har, garagardo feriaren balorazio positiboa egin dute arduradunek. Sanlok eskerrak eman dizkio Elgoibarko Udalari, azken batean hari esker antolatu ahal izan dutelako aurten ere Sanlobeer feria. Azkenik, barkamena eskatu diete Maala inguruko bizilagunei, feriak iraun duen egunetan jasan behar izan duten zaratagatik.

### Sukaldaritza tailerra eta baratze ekologiko batera bisita antolatu dituzte, Debabarreneko Aste Ekologikoaren barruan

Urriaren 2an hasiko da Debabarreneko Aste Ekologikoa, eta horren barruan, hainbat ekintza antolatu dituzte datorren asterako. Urriaren 3an sukaldaritza tailerra egingo dute Txillarre eko-dendan, 18:00etatik 20:30era. Hurrengo egunean, berriz, baratze ekologiko bat bisitatuko dute. Bi ekintzak doakoak dira, baina plazak mugatuak direnez, izena aurrez ematea eskatu dute antolatzaileek. 943 761 447 telefonoan eman daiteke izena.

### 'Daixola' programan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Izarraren *Daixola* egitasmoan izena emateko epea urriaren 6an amaituko da. LH4-6 urte bitarteko umeentzako programa da, eta euskaraz ondo pasatzeko helburuarekin sortu zuen Elgoibarko Izarrak duela bi urte, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. Aurten aldaketa batzuekin dator egitasmoa. Koadrilaka beharrean, taldeak adinka sortuko dira, haien intereseko gaien arabera. Hala, 10-12 urte bitarteko gaztetxoek egin nahi dituzten planak gauzatzen laguntzeko programa izango da.

Ume bakoitzak 50 euro ordaindu behar ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 45 euro). Informazio gehiagorako 943 741 626 (Amaia) telefonora deitu daiteke.

### Hainbat ekitaldi izango dira Edoskitzearen Astean

Maitasunez Hezi elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Edoskitzearen Astearen barruan. Bihar elkartea bera aurkeztuko dute 12:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Datorren egunerako hitzaldia antolatu dute. Edoskitzearen lehen egunak izenburupean, Mari-bel Lopez Mendaroko ospitaleko pediatra eta edoskitze laguntzaileak eskainiko du. 17:00etan izango da hitzaldia, Kultur Etxeko sotoan.

### Umei eskolak emateko boluntarioak behar dira

Elgoibarko Gurutze Gorriak *Eskola Arrakasta* izeneko egitasmoa jarriko du martxan urriaren 4tik aurrera. Programa horren barruan klase partikularrak ordaintzeko gai ez diren familietako umei lagunduko diete, etxeko lanak egiten edota euskara ikasten. Ume horiei laguntzeko boluntarioak behar dituzte. Interesatuek 675 847 307 telefonora deitu dezakete.

## Hamazazpi merkatarik hartuko dute parte bihar Txankakuaren stock ferian



**T**xankakua merkatarik elkarteak stock azoka antolatu du biharko, herriko merkataritzari bultzada emateko. Dendak kalera irtengo dira, Maalako parkera, hain zuzen ere, eta 10:00etatik 14:30era arte egongo da produktuak ikusi eta erosteko aukera. 17 merkatarik hartuko dute parte azokan, eta besteak beste, jantzi-dendak, kirol jantzi-dendak, oinetako dendak, lurrindegia edota estetika zentroak izango dira.

14:00etan zozketa egingo dute. Aste honetan zehar Txankakuako komertzioetan erosketak egin dituzten herritarrek zozketan parte hartzeko boletoak jaso dituzte. 600 euro banatuko dituzte saritan. Elkarteko arduradunek jakinarazi dute zozketaren unean Maalan bertan egon behar dela saria eskuratzeko.

## 'Elgoibar Ekinean!', enpresa berriak sortzeko eta ekintzailtza sustatzeko programa

Elgoibarko Udalak *Elgoibar Ekinean!* izeneko programa jarri du martxan, herrian enpresa berriak sortzeko eta ekintzailtasuna sustatzeko. Laguntza-programaren aurrekontu osoa 15.000 eurokoa da. Hortaz, negozioa martxan jartzeko gastuen %75 emango dute gehienez: industria sektorekoa bada 5.000 euro gehienez, eta beste edozein izaeratako enpresa bada, 2.000 euro (ostalaritzako negozioak ez dira onartuko). Jarduera 18 hilabetez egon beharko da martxan gutxienez, eta epe hori amaitzean Elgoibarko Udalak diru-laguntzaren ebaluazioa egingo du emaitzak, baliagarritasuna eta eragina aztertzeko. Eskariak egiteko epea azaroaren 30ean amaituko da. Interesatuek herritarren arretarako bulegoan (Santa Ana kaleko 2 zenbakian) aurkeztu ditzakete eskaerak. Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean argiratu dituzte oinarri guztiak.

## Aubixako erretratu zaharrak bildu nahi dituzte

Maritxu Loiola Aubixako arduradunak barnetegitik pasatu diren taldeen argazkiak berreskuratu nahi ditu, baserriko horma batean zintzilikatzeko. Elgoibartarrei eskatu die etxean dituzten Aubixako argazkiak ondorengo helbide elektronikora bidaltzeko: [aubixa@outlook.com](mailto:aubixa@outlook.com)



## Gure Esku Dago-k zozkatu du otarra

Herriko merkatariek emandako elikagaiekin osatutako otarra zozkatu zuen zapatuan Elgoibarko Gure Esku Dago taldeak, eta 0118 izan da zenbaki saritua (ordezkoa 0968). Boletoaren jabeak mezu bat bidali beharko du [elgoibarged@gmail.com](mailto:elgoibarged@gmail.com) helbidera. Irabazlerik agertzen ez bada, urriaren 8an berriz egingo dute zozketa, beraz, boletoak oraindik ez botatzeko esan dute arduradunek.



EMAITZAK ELGOIBAR	EAJ PNV		ehbildu		elkarrekin PODEMOS		PSOE		PP		C
	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012
KULTUR ETXEA	884	937	772	660	-	199	305	158	135	98	-
JUBILATUAK	152	209	89	93	-	26	34	24	15	25	-
P. MUGURUTZA	378	406	360	292	-	145	236	106	76	64	-
SAN ROKE	315	338	268	218	-	63	103	50	46	36	-
URAZANDI	180	188	183	125	-	71	181	98	37	33	-
ALTZOLA	166	39	138	52	-	22	20	2	9	8	-
IMH	253	224	199	157	-	57	109	48	36	26	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.328</b>	<b>2.341</b>	<b>1.959</b>	<b>1.597</b>	<b>-</b>	<b>583</b>	<b>998</b>	<b>486</b>	<b>354</b>	<b>290</b>	<b>-</b>

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2016.09.25 (Elgoibar)**

URTEA	ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2009	8.890	6.010	38	702	2.980
2012	8.902	6.103	70	41	2.855
<b>2016</b>	<b>8.772</b>	<b>5.514</b>	<b>24</b>	<b>19</b>	<b>3.258</b>

# EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, nagusitasunez



**EAJ izan da alderdirik bozkatuena Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere, eta EH Bildu izan da bigarren indarra. Era berean, azken asteotan argitara eman diren hainbat inkestek iragartzen zutena bete egin da gurean ere, eta Elkarrekin Podemos izan da hirugarren alderdi bozkatuena. Estreinakoz aurkeztu da Elkarrekin Podemos Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara eta indar berri horrek dantza eragin du emaitzetan. PSE-EEren emaitzetan igarri da nabarmenen.**

- AINARA ARGOTIA -

**B**ere hegemoniari eusten dio EAJk Eusko Legebiltzarrean. Hiru herrialdeetan nagusitu dira jeltzaleak, nagusitasunez, eta 2012ko hauteskundeetan baino bi eserleku gehiago eskuratu dituzte: 29. 1980. urteaz geroztik behin bakarrik galdu du lehendakaritza EAJk, 2009. urtean, Juan Jose Ibarretxeren garaian eta legez kanporatzeen testuinguruan PSE-EEK eta PPK bat eginda agintaritza kendu ziotenean. EH Bildu izan da bigarren indar politikoa. Lau eserleku galdu ditu Bilduk —17 eskuratu ditu—, baina Elkarrekin Podemos

indar berriaren sarrerari eutsi dio eta aurreko hauteskundeetako joera irauli. Podemos izan da hirugarren indarra, eta babes esanguratsua lortu du gainera. Beraz, Euskal Herria naziotzat daukaten eta erabakitze eskubidea aitortzen duten hiru taldeak izan dira bozkatuenak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian —75 eserlekuetatik 57 lortu dituzte guztira—. Eta horixe, argazki hori bera, errepikatu da Elgoibarren eta Mendaron ere. Orokorrean gertatu bezala, PSE-EEK eta PPK emaitza txarrak lortu dituzte gure bi herrietan.



						BESTEAK	
2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	
26	41	-	22	-	63	25	
4	2	-	1	-	16	1	
15	21	-	16	-	44	26	
12	11	-	6	-	17	9	
16	25	-	6	-	34	15	
6	6	-	0	-	6	1	
7	6	-	5	-	15	11	
<b>86</b>	<b>112</b>	<b>-</b>	<b>56</b>	<b>-</b>	<b>195</b>	<b>88</b>	









Elgoibarren, 2.341 boto lortu ditu EAjk, eta beraz, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan alderdirik bozkatuena izaten jarraitzen du. Jeltzaleek 744 botoko aldea atera diote bigarren alderdi bozkatuenari, EH Bilduri (1.597 boto lortu zituen). Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeetan lortu zituzten emaitzei erreparatu badiogu, aldea handitu egin da bien artean. Orduan, 2.328 boto eskuratu zituen EAjk, eta 1.959, EH Bilduk. Elkarrekin Podemos izan da hirugarren indarra, PSE-EEri, Legebiltzarrerako hauteskundeetan Elgoibarren historikoki hirugarren indarra izan denari, aurrea hartuta. Elkarrekin Podemos 583 boto eskuratu ditu, eta PSE-EEK 486 (2012an, 988 boto). Espainiako kongresurako hauteskundeetan aurkeztu zuen

hautagaitza estrainekoz Podemosek, eta orduko hartan EH Bildurekin nahikoa berdinduta gelditu ziren -1.243 boto lortu zituen Podemosek eta 1.267, EH Bilduk-. Aipatzekoa da, era berean, abstentzioak gora egin duela. 8.772 herritar zeuden Elgoibarren botoa ematera deituta eta 5.511 lagunek eman dute botoa. Abstentzioa, beraz, %37,18koa izan da, 2012ko hauteskundeetan baino bost puntu altuagoa.

Mendaron ere EAjk lortu ditu boto gehien, 373, eta EH Bildurena izan da bigarren zerrenda bozkatuena, 268 botorekin -105 botoren aldea-. Podemos izan da hirugarren alderdia, 144 botorekin, PSE-EEK baino 87 gehiagorekin. Guztira, 1.440 mendaroak zeuden botoa ematera deituta domekan, eta horietatik 904k eman zuten. Parte-hartzea, beraz, %62,15koa izan zen.

Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeekin alderatuz gero, EAjk, 32 boto galdu ditu Mendaron (405 boto eskuratu zituen orduko hartan), eta EH Bilduk, 83 (2012an, 351 boto irabazi zituen). PSE-EEK beherakada nabarmena izan du, erdira egin duelako, baina kontuan hartu behar da Podemos estreinakoz aurkeztu dela aurten Legebiltzarrerako, eta indar berri bat egoteak botoen dantza ekarri duela, beste herri askotan bezala. Iaz, abenduan egin ziren Espainiako Gortearako hauteskundeetan aurkeztu zituen zerrendak estreinakoz Elkarrekin Podemos koalizioak, eta orduan 290 boto eskuratu zituen Mendaron. Ezustekoa eman zuen, bost botogatik EAjri aurrea hartuta - Botoa eman zuten hiru lagunetik batek koalizio moreari eman zion botoa eta beste batek EAjri (985)-.


## MENDARO

																	BESTEAK	
EMAITZAK MENDARO	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016
<b>UDALETXEA</b>	405	373	351	268	-	144	110	57	34	34	-	10	19	-	8	-	34	9


## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2016.09.25 (Mendaro)

URTEA	ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2009	1.489	992	14	83	507
2012	1.458	973	6	6	488
<b>2016</b>	<b>1.440</b>	<b>904</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>545</b>

### Eusko Legebiltzarraren osaketa (%100)



### Gehien bozkatutako alderdiak (botoak)



EAJ-PNV

EH Bildu

Elkarrekin  
Podemos

PSE-EE

PP

C's



### Iruñe Berasaluze mendarorarra legebiltzarkide izango da

Iruñe Berasaluze mendarorarra legebiltzarkide izango da legealdi berrian. EAJren Gipuzkoako hautagaien zerrendan bosgarren aurkeztu zuten Iruñe Berasaluze, eta Gipuzkoan bederatzi eserleku lortu dituztenez, legebiltzarkide izango da. Hautagaien zerrenda horretan hamargarren aurkeztu zuten Maialen Gurrutxaga, eta oraindik Gobernu osatu arte zain egon beharko bada ere, aukera handia du legebiltzarkide izateko. Izan ere, litekeena da Arantxa Tapia sailburu aukeratzea, eta hori hala gertatuz gero, zerrendako hamargarrenarentzat, alegia Gurrutxagarentzat, izango litzateke EAJk Gi-

puzkoatik lortu duen bederatzigarren eserleku hori.

Hauteskunde gauean bertan lortu zuen BARRENEk telefono bidez Iruñe Berasaluzerekin harremanetan jartzea, eta bat-bateko balorazio "ezin hobea" egin zuen hark lortutako emaitzen inguruan. "Kontuan hartuta alderdi berri bat aurkeztu dela eta horrek emaitzetan dantza ekar zezakeela, gu oso-oso pozik gaude, indar politiko berri hori sartu izanak ez duelako eragin negatiborik izan gure emaitzetan. Kontrakoa: 2012ko hauteskundeeetan baino emaitza hobek lortu ditugu", azaldu zuen. EH Bilduk lortutako emaitzak ere "ixukunak" izan direla esan zuen, besteak beste Elkarrekin Podemos aurkeztuta ere bigarren indarra izatea lortu dutela arrazoituta.

Legebiltzarkide izatea "erronka berrizat" hartu du Berasaluzek. "Hautagai izendatu nindutenean bazen erronka eta orain gauzatu egin da. Oso pozik nago eta eskerrak eman nahi dizkiet botoa eman diguten herritar guztiei", zehaztu zuen. Lehen hiru indar bozkatuenak Euskal Herria naziotzat daukaten eta erabakitze eskubidea aitortzen duten taldeak izanda, legealdi "oso interesgarria" izango dela nabarmendu zuen. Hauteskunde kanpainan "akordioen aldeko posizioa" gailendu dela gogora ekarri zuen eta legealdian zehar bide horri heltzeko aukeraz mintzatu zen: "Erabakitze eskubidearen alde aurrerapauso handiak emateko aukera zabalduko da".



### Arnaldo Otegiren inhabilitazioa

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ez dira normaltasun osoz egin. Izan ere, Arnaldo Otegi elgoi-bartarrak, EH Bilduren zerrendaburuak, ez du hauteskundeez aurkeztetik izan. Hala ebatzi zuen Gipuzkoako Hauteskunde Batzarrak abuztu bukaeran; ezingo zuela. Otegi "hautaezina" zela esan zuen Hauteskunde Batzarrak, Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalak aurrez esana zuen moduan Otegi inhabilitazio zigor bat indarrean zuela baieztatuta. *Bateragune auzian*, 2021. urtera arteko inhabilita-

zioa ezarri zioten Otegiari, sei urte eta erdiko kartzela zigorrak gain. Inhabilitazioa ez gauzatzeko eskatu zuen orduan Sortuko idazkari nagusiak, zigorrak zein karguri eragiten dion ez duela zehazten arrazoituta, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak atzera bota zuen urtarrean babes helegite hori.

EH Bilduko mahai politikoa astelehenean, hauteskundeen biharamunean, batzekoa zen, goiz horretan bertan Maddalen Iriartek Euskadi Irratiari esandakoaren arabera, eta han zuten erabakitzeoa lehendakarigairik aurkeztuko ote zuten eta zeinek beteko zituen bozeramaile lanak Legebiltzarrean.



## ▶ JAVI DOMINGUEZ

MENDIKO KORRIKALARIA

**“Munduko onenetakoa, eta gainera, apala. Horregatik, bakarra da Javi”. (Felipe Artigue, laguna eta mendizalea). Gasteiztarra izanagatik 9 urte daramatza Elgoibarren lanean Javi Dominguezek (Gasteiz, 1974). Fisikan doktorea eta mendizalea, sarri ikusiko duzu Karakaten. Berandu samar hasi zen korrika, asfaltoan lehenengo eta mendian gero. Lasterketa luzeetan gorputzak ongi erantzuten ziola ohartu eta horretan dihardu azken urteetan. Burua zenbakiekin jolasean jarri eta lasai-lasai, tropelean ezkutaturik hasten omen ditu lasterketak: atzetik aurrera, horixe bere estrategia. Eta emaitza ezin hobea ematen ari zaio. Euskal Herrian ez ezik, munduko lasterketa gogorrenetan ere punta-puntan dabil.**

- AINHOA LENDINEZ -

# “Ultra lasterketak bidaia luze bat egitea bezala dira”

♦ **2015a min hartuta eta geldirik egon ostean, 2016a bikaina izaten ari da. Derrigorrez atsedean hartu behar izateak on egin dizu?** Bai, on egin zidan. Korrika ezin eta lehen aldiz errepideko bizikletan ibili nintzen, pilak kargatu nituen eta motibazio handiagoarekin itzuli nintzen.

♦ **Hirugarren Lavaredoko ultra trailean (120 km), hirugarren Tolosako Hiru Tontorretan (42 km), Ehunmiletan (168 km) irabazi, hirugarren munduko txapelketan (105 km) eta bosgarren Mont**

**Blanc-eko ultra trailean (168 km). Zein da urteko balorazioa?**

Emaitza sinestezinak izan dira niretzat. Proba batetik bestera oso gutxi berreskuratu dut, gainera. Minak desagertu eta emaitzak agertu dira, ezin gehiago eskatu.

♦ **Ehunmiletan hainbat aldiz irabazi duzu eta aurten ere bai, 40 minutuz galduta egon ostean, gainera. Zer gertatu zen?** Hainbat erabaki okerren ondorioz galdu nintzen. Bidea galdu nuela ohartu nintzenean atzera egin behar

nuen, baina... bide zuzenera gerturatzeko ari nintzela uste nuen, baina gero eta gehiago ari nintzen urruntzen. Aralarrekoa bezalako baso itxietan oso erraza da orientazioa galtzea, ez dago elako erreferentzia askorik. Eta ohi bezala, biderik txarrena aukeratu nuen nik (barrez). Azkenean denbora galdu nuen, baina buelta eman nion eta lasterketa ongi amaitu nuen.

♦ **Mont Blanc-eko Ultra Trailean bosgarren egin duzu, oilar askoren aurretik.**

Bero izugarria izan genuen eta ia



denei erasan zien. Nire ustez ohi baino lasterketa irekiagoa izan da aurtengoa. Ohiko baldintzetan onenek irabazi ohi dute lasterketa hori baina bestelako baldintzetan horren onak ez garenok podiumetik gertuago egoteko aukera daukagu. Ni neu pixkanaka joan nintzen korrikalariak aurreratzen, atzetik aurrera. 6 kilometro falta zirenean, azken jaitsieran, bosgarrenari ere aurrea hartu nion eta oso pozik amaitu nuen.

♦ **Aigues Tortesen (Kataluniako Pirinioak) jokatu da aurten munduko txapelketa. Estreinakoz Euskal Selektzioarekin aritu zara eta hirugarrenen egin duzu!**

Ehunmiliak irabazi eta bi aste geroago izan zen Buff Epic Trail (105 km). Nekatuta egongo nintzela uste nuen, baina indarra neukan gordeta. Han ere atzetik aurrera egin eta hirugarren amaitzea lortu nuen, oso sentsazio onekin, gainera. Euskal Selektzio osoarentzat oso pozgarria izan zen, lehenengoz joan ginelako ultra distantziako munduko txapelketara eta oso maila ona eman genuelako. Emaizta hauek Euskal Selektzioaren ultra distantziako taldea indartuko dute datozen denboraldietarako.

♦ **Urtean ultra distantziako lasterketa bat egitea omen da komenigarriena,**

## *“Mendiko korrikalaria mendizalea eta korrikalaria da niretzat”*

**edo gehienez, bi. Zuk aurten zazpi bat egin dituzu. Nola osatzen zara batetik bestera?**

Zentzuz jokatzuz eta gorputzari entzunez. Gorputzak ezin duela esaten badu, gelditu egin behar duzu. Urteak darabatzat ultra distantziako lasterketak egiten eta oraingoz gorputzak eusten dio, eta garrantzitsuenak, buruak, ere bai. Badakit ez dela egokiena, badakit lasterketa gutxiago aukeratu beharko nituzkeela, baina zaila da ezetz esatea, areago gustuko dituzun probei.

♦ **Noiz ohartu zinen ultra distantziarako dohainak zenezkala?**

2010ean egin nuen lehen ultra lasterketa, Hiru Handietan. Ez nekien ia ezer lasterketa luzeez eta bosgarren amaitu nuen. 2011n Ehunmiliak irabazi nituen eta orduan konturatu nintzen lasterketa luzeetarako erresistentzia neukala eta erritmo konstantearekin eusteko gai nintzela.

Orduan hasi nintzen neure buruan sinesten.

♦ **Zenbat entrenatzen zara?**

Oro har ez naiz asko entrenatzen, besteak beste ez daukadalako asti askorik. Ultra lasterketen denboraldia gerturatu ahala asteburuetan saio luzeren bat egiten dut, baina gero eta alferriagoa naiz, eta neure kabuz joan ordez lasterketa luzeren batean ematen dut izena kilometroak piltatzeko. Ez omen da onena, baina niri oraingoz ongi doakit.

♦ **Burua giltzarri omen da ultra lasterketetan.**

Burua oso garrantzitsua da: %33 burua dela esango nuke, %33 sabela eta gainerako %33a fisikoa. Hiru horietakoren batek huts egiten badu, gauzak ez dira behar bezala aterako.

♦ **Fisikaria zara. Egia da lasterketetan zenbakiekin jolasten zarela?**

Bai (barrez). Ibilbidearen zein zati egin dudana eta egiteko zenbat falta zaidan pentsatuz, edo anoa-postu batetik bestera zenbat denbora egin dudana pentsatuz. Proporzioekin kalkuluak eginez dibertitzen naiz, eta neure burua animatzen dut. Edozertan pentsatzen dut, lanaren inguruan ere bai. Autobusez bigaia luze bat egitea bezala da: paisaia ikusi, aldamenekoari begiratu, telefonoz

deitu... berdin-berdin, baina lorik egin gabe.

♦ **Mendiko lasterketak modan daude, baina kritikak ere jaso dituzte. Mendiari errespetua galdu zaio?**

Lasterketak eta mendian korrika egitea ez dira gauza bera niretzat. Lasterketak lehia dira, eta lehia denean dago, baita oinez ere. Himalaismoan, alpinismoan, eskian, korrika... baita ondo bila ere. Denean dago lehia. Bestalde, mendiari modu askotan galtzen zaio errespetua: bidea ezagutu gabe eta horrek zer ekar dezakeen jakin gabe mendira joatean, ia arroparik gabe, prestatu gabe, zer eguraldi egingo duen begiratu gabe. Baina zortzimilakoak nolana nahi igoz ere galtzen zaio errespetua mendiari; bideak goitik behera sokaz ekipatuz, oxigeno botilak lurrera botaz... Perretxiko bila joan eta ahalik eta gehien lortzeko grinarekin joatea ere mendiari errespetua galtzea da nire ustez. Moto edo quadekin bideak suntsitzea, edo jendea dabilen bideetatik mendi bizikletan ziztu bizian jaitea ere bai. Mendian biltzen den jendetzari buruz ere asko hitz egiten da, baina pilaketa handienak egun jakinetan izaten dira, erromerietan, eta halakoetan gehienak oinez joaten dira. Nola goazen, oinez edo korrika, mendiari ez zaio axola.

♦ **Mendiko korrikalariak mendizaleak dira?**

## “Mendira joateari utziko diot mendiaz gozatzeari uzten diodanean”

Mendiko korrikalaria mendizalea eta korrikalaria da niretzat. Baina batzuk %90-10 dira mendizale-korrikalari, beste batzuk %50-50, besteak %10-90... Hala ere, oraindik ez dakit zer den mendizale izatea. Mendira oinez edo bizikletan doanari galdetzen ote zaio mendizalea den?

♦ **Egun bat korrika egin gabe... eguna galtzea da?**

Inondik ere ez. Eguna galtzea egun osoa telebistari itsatsita egotea da niretzat.

♦ **Mendian korrika egiteko gai ez zarenean, mendira joateari utziko diozu?**

Mendira joateari utziko diot mendiaz gozatzeari uzten diodanean. Orain gorputzak uzten dit, eta korrika, oinez eta bizikletan joaten naiz mendira.

♦ **Aita izango bazina, zer erakutsiko zenieke seme-alabei, matematikak ala mendia?**

Matematikaz hitz egingo nieke, baina

mendian gora... asmakizunak kontatu, zientziaren bitxikeriak, pentsarazi egingo nieke.

♦ **Aurten ez zara Hiru Handietan aterako, urrian, Diagonale des Fousera (Eroen Zeharkaldia, 170 km) joango zarelako, Reunion uhartean. Zuk zeuk esana da egin duzun lasterketa gogorenetakoa dela. Erotu egin gara?**

Ultra distantziako lasterketetan aritzen ez den jendearentzat hau guztia eromena izango da, zentzurik gabeko erronkak izango dira. Nola da posible Diagonale des Fous bezalako proba gogor batean gozatea? Ba bai, gozatu egiten dugu. Reunion uhartea leku ikusgarria da, ibilbide gogorrekoa eta hango jendearen zaletasuna sinestezina. Eta bestela, hondartza ere han dago, aukeran (barrez).

♦ **Eta azaroan Karakateko igoera...**

Bai, azaroan urteko hitzordu handia, Karakateko igoera. Ez dago urrutira joan beharrik, ezta kilometro asko egin beharrik ere, mendiaz eta lagun arteko lehia eta apustuez gozatzeko. Lasterketako giroa itzela da Karakaten, eta lasterketa ostekoa ere bai: plazan, baba-janean eta ondoren, gorputzak eusten dion artean.

## HITZ BATEAN

- **Zegama Aizkorri:** onena
- **Lavaredo:** ikusgarria
- **Ehunmiliak:** familiakoa
- **Buff Epic Trail:** Pirinioetan, azkenean!
- **UTMB:** handiena
- **Hiru Handiak:** mitikoena, eta gainera, arabarra
- **Karakate:** mundiala
- **Pelikula bat:** *Pulp fiction*
- **Liburu bat:** hunkitu ninduen azkena, *Los catorce de Iñaki*
- **Kanta bat:** La Pollaren edozein
- **Beste zaletasun bat:** garagardoa egitea
- **Bizio bat:** azazkalak jatea
- **Edari bat:** garagardoa
- **Jaki bat:** babarrunak



## Bertan behera geratu da Sanrock festibala, biharko euria iragarri dutelako

Aste guztia eguraldi iragarpenari begira pasatu ostean, Sanrock festibala bertan behera uztea erabaki du Elgoibarko Izarrako Kulture-kintza taldeak. Biharko euria iragarri dute, eta Sanrock moduko jaialdia egiteko ezinbestekoa zen eguraldi lehorra. Antolatzaileek ez dute Sanrock egiteko ordezko lekurik ikusten Elgoibarren, izan ere, jaialdiaren oinarria musika eta lagunarteko picnic giroa uztartzea zen. Hasieratik baztertu zituzten ordezko planak, bazekiten eguraldiaren menpe zegoela jaialdia, baina argi zuten lekua Azkue auzoko berdegunea izan behar zela: "Lan handia egin dugu, eta egindako lanetik gauza asko ikasi ditugu", esan



dute. Datorren urteko uda aldean berriz saiatuko dira: "Gogotsu eutsiko diogu bigarren saiakera horri".

Eskerrak eman nahi dizkiete hau guztia antolatzen lagundu dieten elkarte eta

norbanakoei: Kultura Saila, Sinüose, Inazio Bereziartua musika eskola, Belceblues, Kokein, Jon Basaguren, musika eskolako rock taldea, Hyggeling Studi (Ane Gorrii) eta herriko hainbat gazte.

## 'Euskarak 365 Egun' ekimenean parte hartzeko izenematea hilaren 14ra arte

Erabaki dute dagoeneko aurtengo *Euskarak 365 Egun* ekimeneko egitaraua. Abenduaren 2an izango da ekitaldia, Euskararen Nazioarteko Egurenaren bezperan, hain zuzen ere. 19:00etan giza katea egingo dute Kalegoen plazatik Maalaraino, 19:30ean *Plazera plazara* jaialdia izango da Malako parkean, eta 21:00etatik aurrera pintxopotea herriko tabernetan. Protagonistak Elgoibarko elkarte-erakundeak izango dira, iaz bezala.

Dagoeneko 48 elkartek eman dute izena giza katean parte hartzeko, eta 24 dira *Plazera plazara* jaialdian parte hartuko dutenak. Oraindik, baina, zabalik dago ekimen horietan parte hartzeko izenematea.

Zure elkarte-erakundeak parte hartzeko interesa badlin badauka, urriaren 14ra arte dauka izena emateko epea. Elgoibarko Izarra deitu behar da (943 741626) edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzita.

# SALENTO

## BAR PIZZERIA

Pedro Miguel Urruzuno, 10 - 20870 Elgoibar  
[salento\\_elgoibar@hotmail.com](mailto:salento_elgoibar@hotmail.com)  
 Facebook/Salento de Carlo



# BERRIA!

Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar



**BANAKETAREN ORDUTEGIA:**

**Astelehenetik ostegunera:**  
20:00etatik 23:00etara

**Ostiral eta larunbatak:**  
20:00etatik 23:30era

**Igandetan:**  
13:00etatik 16:00etara  
20:00etatik 23:00etara

**GURE ESKAINTZATIK NAHI DUZUNA ESKATU ETA ETXERA ERAMANGO DIZUGU.**

943 740 196



salento de carlo

Eguneko menua: astelehenetik ostiralera

## 'Pedaló' filma saritu dute Donostiako Zinemaldian, protagonistetako bat Joseba Etxeberria elgoibartarra duena

Juan Palacios zinegile eibartarraren *Pedaló* filmak irabazi du Euskal Zinemaren Irizar Saria amaitu berri den Donostiako Zinemaldian. Euskal Herriko kostaldea, Miarrizetik Bilbora, pedalo batean zeharkatzen duten hiru lagun bidaia zoroa kontatzen du dokumental honek, eta Deban bizi den Joseba Etxeberria elgoibartarra da hiru "marinel" horietako bat. Internet bidez pedalo edo uretako bizikleta bat erosi ostean, hiru lagunek Euskal Herriko kostatik egingo duten hogeitaz eguneko bidaia kontatzen du Juan Palacios zinegileak 71 minutuko filma honetan. Horrela azaltzen du berak: "Zinemagile hasiberri bat hiru laguni segika dabil bidaia nautiko surrealista batean. Bigarren eskuko pedalontzi batera igota, Euskal Herriko kostatik 150 kilometro egiteko asmoa dute, Miarritzen hasi eta Bilbora arte. Pedalontzia, tamalez, ez da Kantauri itsasoko uretan ibiltzeko sortua, eta hasi bezain



Atzekoa da Joseba Etxeberria

pronto, zoramen bihurtuko da bidaia: ezbeharra, parranda, bihar ramuna, xamana, hileta eta abar. Hiru 'marinel' hauen espedizioa dokumentatzen doan heinean, zuzendaria bidaia paralelo batean murgilduko da".

### Aire libreko margo lehiaketa egingo dute bihar Mendaron

Aire libreko margo lehiaketa egingo dute bihar Mendaron, 9:00etatik aurrera. Formatoa, teknika eta euskarria artista bakoitzak aukeratu dezake, baina gaia Mendaro izango da, hau da, herriarekin zerikusia duen zerbait marraztu beharko da. Lanak 13:00etatik 14:00etara bitartean entregatu beharko dira, frontoian. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, eta ondorengo biek 300 eurokoa. 14 urtetik beherakoen artean, bi lanek onenen egileek pinturarako materiala jasoko dute. Margo lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa egingo dute gero, urriaren 7tik 16ra. Lagun Betikoak jubilatuen egoitzan jarriko dituzte lanak ikusgai, ostiral, larunbat eta igandeetan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00).


### Rockak hartu zuen Garagartza zapatuan



Musikak hartu zuen Mendaroko Garagartza auzoa zapatuan. Bikustik Elgoibarko musika taldeak hasi zuen jaialdia eta jendea dantzan jarri zuen. Umeek ere izan zuten rock musikan barneratzeko aukera, euretzanko propio prestatutako tailerrekin. Eguraldia lagun, Mendaroko jendea ez ezik, inguruko herrietatik ere etorri zen jendea Gararock jaialdira. Afalostean, Munlet taldeak *Chupacabras* diskoa aurkeztu zuen. Goizaldeko ordu txikiak arte jarraitu zuen musikak Gaztetxean, Bilboko Vulk taldearekin.

### Urriaren 6ra arte luzatu dute Beinke bertso eskolan izena emateko epea

Elgoibarko Izarraren Beinke bertso eskolak urriaren 6ra arte luzatu du ikasturte berrirako izena emateko epea. Beinke bertso eskolak bertsolaritza ezagutzeko, ahozketasuna eta komunikazioa lantzeko eta hizkuntzarekin jolasen ikasteko aukera eskaintzen du. Egitasmo hau Udalaren laguntzarekin gauzatzen da. Izena emateko edo informazio gehiagorako: 943 741 626 (Naiara) telefonora deitu edo ondorengo helbide honetara mezu bat idatzi daiteke: [atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus](mailto:atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus)



## Gaizka Agirre eta Aaron Garmendia gailendu dira Debabarrena

parraldeko Raid Abentura Ligako (LINRA) proba puntuagarria jokatu zen aurreko zapatuan Elgoibarren, II Debabarreneko Orientazio Raida. Aaron Garmendia laudioarrak eta Gaizka Agirre artearrak osatutako Euskal Raid Aralar Kiroiak taldeak eskuratu zuen puntu gehien (91) denborarekin. Iñigo Lariz eta Jon Irazabal elgoibartarrek osatutako LRT taldeak egin zuen bigarren, 90 puntu eta 6:50:42ko denbora gutxura gelditu dira aurtengo raidarekin eta parte hartzaile askoren zorionak jaso dituztela jakinarazi dute. San Bartolome elizatik Kalegoe izan zela ere nabarmendu dute. "Ikusle ugari erakarri zuen eskalada eta tirolina probak plazara, eta asko poztu gintuen antolatzaileok", e

## 90 haur eta guraso Morkaikoren mendi irteeran

Ikasturte berriko lehen irteera egin zuten aurreko domekan Morkaikok eta herriko ikastetxeek elkarlanean. 45 ume eta beste horrenbeste gurasok egin zuten Debatik Mutrikuko Kalbario ermitara arteko bidea oinez. Hurrengo mendi irteera Morura izango da, urriaren 23an.







## raidean

a. Guztira 42 bikotek hartu zuten parte eta (untu), 6 ordu 53 minutu eta 20 segundoko kin. Morkaiko Mendizale Elkarteko kideak plazara prestatu zuten tirolina arrakastatsua n dute. Argazkiak: Manu Sanchez.

## Inoiz baino bikote gehiago pala misto txapelketan

Elgoibarko III. Pala Misto Txapelketa joan den irailaren 21ean hasi zen, inoiz baino bikote gehiagorekin. 24 bikotek eman dute izena aurtengo txapelketarako, eta lau taldetan banatuta lehiatuko dira. Talde bakoitzeko bi bikoterik onenak sailkatuko dira kanporaketak jokatuzko. Astelehen, eguazten eta eguernetan jokatuko dituzte partidak Kalegoen plazako frontoian. Finala urriaren 28an jokatuko da. Iaz, Lara Urainek eta Julen Salaberriak osatutako bikoteak irabazi zuten.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Haundi 1 – Touring 0 (Oho. erreg.)  
Urola 3 – Elgoibar 3 (1. erreg.)  
Elgoibar 2 – Zestoa 0 (Oho. Jub.)  
Ikasberri A 1 – Elgoibar 3 (Jub. 1. maila.)  
Arrasate 1 – Elgoibar 1 (Oho. Kad.)

### ARETO FUTBOLA

Inter Donostia 2 – Concepto Egile 3 (Nazional B)

### ESKUBALOIA

Barakaldo 25 – Alcorta Forging Group 27  
(Senior giz.)

## Agenda

### ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 2  
12:30 Concepto Egile – San Juan A.D. (Naz. B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1  
11:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Oho. Kad.)  
16:30 Elgoibar – Lagun Onak (Jub. 1. maila)  
Domeka, 2  
16:30 Elgoibar – Munibe (1. erreg.)

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 1  
10:00 Bankoa – Amenabar (Kad.mt.)  
11:30 Astigarraga – Kukullaga (Kad.nesk.)  
13:00 Tecnifuelle – Kukullaga (Jub.nesk.)  
17:45 Lauko – Ereintza (Sen. emak. Lagunartekoa)  
19:30 Alcorta Forging Group – Askartza (Sen. giz.)

### ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Zapatua, 1  
12:30 Deca – Hondarribi (Jub. mut.)

## Dabid Garcia eta Ainhoa Sanz nagusi Gau Krosean

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta, Gau Kros Herrikoaren 7. edizioa jokatu zuten zapatu iluntzean Elgoibarko kaleetan. Guztira 121 lagunek parte hartu zuten, 106 gizonetarako eta hamabost emakumek. Azkarrenak Dabid Garcia durangarra (24:52) eta Ainhoa Sanz urretxuarra (27:57) izan ziren. Garciak hirugarrenoz irabazi du proba hau, eta bigarrenoz Sanzek. Elgoibartarrei dagokionez, 65 izan ziren parte hartzaileak eta Jon Garate eta Cristina Villalobos izan ziren azkarrenak. Sailkapenak eta argazki gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)



**LANA.....****Eskaerak**

Umeak zein adinekoak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo portalak garbitzeko prest nago. 13:00etatik aurrera. ☎ 943 743 638

Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo baserriko lanak egiteko prest. ☎ 634 830 423

Tituludun irakasleak ingeles eskolak eman ditu. Talde txikiak. ☎ 680 319 002/943 744 062

Etxeak garbitzen egingo nuke lan, orduka. ☎ 637 102 725 / 943 744 033

Sukaldari laguntzaile lanetarako, adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 677 259 560

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Gauetz ere, ospitalean zein etxean. ☎ 660 511 817/943 742 330

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 928 108

Mendaroko gaztea LHko haurrei eskola

partikularrak emateko prest. ☎ 646 738 095

Adinekoak edo umeak zaintzeko, edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ 602 047 812

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. Baita sukaldari laguntzaile aritzeko ere. ☎ 616 457 254

Eskola partikularrak emango nizkieke, 6-12 urte bitarteko umei. LH Magisteritza ikasten ari naiz, ingeleseko First titulua daukat eta dislexiari buruzko ikastaro berezi bat. ☎ 648 505 233 (Amaia)

Adinekoak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Goizez, orduka. ☎ 647 100 572

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Formazioa eta diplomak dauzkat. ☎ 671 989 434

Portalak eta elkarteak garbitzeko prest nago. ☎ 617 571 210

Gazte eskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolako lanak egiten laguntzeko. Gizarte Hezkuntzan diplomaturia. ☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo

adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 620 712 478

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 677 259 560

Garbiketa lanak egiteko prest nago. El goibartarra eta eskalduna naiz. ☎ 649 782 967

Geriatría laguntzailea, adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Paseatzeko prestutasuna. ☎ 646 931 162

Adinekoak zainduko nituzke. Interneta ere bai. Esperientzia. ☎ 632 253 315

Gauetz, ospitalean, gaixoak zaintzeko prest. ☎ 642 636 525

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 408 771

Garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago. Goizez edo eguerdian, 15:00ak arte. ☎ 617 248 087

Nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 628 738 472

Orduka lan egiteko prest. Interneta eta as-

teburuetan ere. ☎ 631 480 376

**Eskaintzak**

LH6. mailako ikasle bati eskolako lanak egiten laguntzeko pertsona bat behar dut. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎ 617 386 198

Ingeles irakasle partikularra behar da, 20 urteko gazte bati eskolak emateko. ☎ 630 410 294

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121


Exebizitza hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. ☎ 620 712 478

**BESTELAKOAK.....**

4x4 Nissan Terrano autoa salgai. 2005koa, jabe bakarra. ITV 2017ra arte. Txapa eta pintura egoera oso onean. Extra guztiak Nissan markakoak. 8.500 euro. ☎ 666 273 573

Karakate mikologia elkarte nire bazkitzailea partea traspasatzeko prest nago. ☎ 688 605 253



I. URTEURRENA

## Segunda Ansola Zigorraga

2015eko irailaren 28an hil zen, 89 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 1, 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**NORFO SL**

**Gure komunitatean obra handi bat egin nahi dugu. Horretarako aldordioak jarri beharko ditugu, eta jakina, arrisku egoera batzuk ere sor daitezke langileentzat. Jakin nahiko nuke zer nolako baldintzak betetzea exijitu behar diogun kontratistari, ez dezan gero hark edo beste inork komunitatea egin sor daitezkeen arriskuen erantzule.**

Nire iritziz, bizilagunak ez daude behartuta inolako dokumenturik eskatzera eta ez dute zertan lan istripuen prebentzioaren alorrean gerta daitezkeen ezbeharren erantzukizunik hartu behar. Izan ere, erantzule bakarra obra egiteko kontratatutako enpresa da.

Lan istripuren bat gertatuz gero, bizilagunen komunitatea ez da ezeren erantzule izango. Berdin dio kontratatutako enpresak lanerako baldintzak bete ez baditu edoeta istripuen prebentzioarako planik ez badu.

**OHARRA: Bizilagunen komunitateak enpresarekin edo enpresa-ugazabarekin dauka lotura, baina ez enpresa horren agindutara lanean ari diren langileekin. Teknikoki ez dago subkontratazio harremanik kontratatutako enpresarentzat lanean ari diren langile horiekin.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**administradores**  
Creado por el Colegio de Administradores de España  
Instituto Profesional de Administradores de España



## ZORIONAK



Zorionak, **Hai-zea**, asteartean 9 urte bete zenituelako. Familia-koen partez.



Zorionak, **Xa-bier**, igandearen 9 urte bete zenituelako, gurasoen eta bereziki Iruneren partez.




Zorionak, **Izaro**. Muxu asko familia osoaren partez.



Bihar, urriak 1, 11 urte! Zorionak, **Maddi**! Ondo pasa eta jaso muxu potolo pilo maite zaituguz guztion partez.




Zorionak, **Elene**! Asteartean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.




Zorionak, **Malen**, asteazkenean 7 urte bete dituzelako. Ongi pasa familia osoaren partez! Ask maite zaitugu!



Zorionak, **Haizea** eta **Oihane**, irailaren 26an 10 urte bete dituzelako. Gurasoen, osaba-izeben eta bereziki, aitiita-amamen partez.



Zorionak, **Jakes** eta **Inar**, Egun on-ona pasatu lagun eta familiakoez inguratuta. Muxu asko denon partez.



Zorionak, **Jakes**! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Muxu handi bat, bereziki Noa, aitonena Pedro eta amona Ixiarren partez.

**ALBERTO**  
Arraindegia

Bihar, urriak 1,  
Mendaroko Alberto  
arraindegia  
bukatutzat emango du  
40 urteko lan-ibilbidea

Lerro hauen  
bidez, guk,  
Albertok eta Julik,  
eskerrak eman  
nahi dizkizuegu  
gugan konfiantza  
izan duzuen  
bezero guztioi

**Eskerrik-asko denoi!**

Gloria berriz ere dendan! Irekiera, zapatuan.  
Igande goizean lunch-a!  
Kalitatezko produktuak prezio onean!

**Gloria** **Bisita gaitzazu!**

**okindegia** Upai Zaharra, behea - Elgoibar

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ARNETTE BETAURREKO OSOA**

Zatoz probatzera!  
Galdetu baldintzak!

**89€**tik hasita  
P.V.P. gomendatua

**GET ON BOARD**

Datorren astean argazkiak **martitzen** eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**

## 30 BARIKAKUA

**21:30** Bideo foruma: *Siete mesas de billar francés*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 1 ZAPATUA

**8:00** Parrokiako 300. urteurrenoko bisita gidatua, Pello Arrietarekin. Sortalde ekialdeko elizak bisitatuko dituzte, Morkaikorekin elkarlanean.

**9:00-14:00** Aire libreko margo lehiaketa, Mendaron.

**10:00-14:00** Stock feria. Txankakuak antolatuta, Maalako parkean.

**12:00** Maitasunez Hazi elkartearen aurkezpena. Edoskitze taldea eta umeen txokoa. Kultur Etxe aurrean.

**22:00** *Nick Maritxu, nick Bartolo* antzerkia, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

## 2 DOMEKA

**9:15** Zumaiako Flysh-era bisita gidatua. Haizeak antolatuta. Inma Mugertzak emango ditu azalpenak.

## 5 EGUAZTENA

**17:00** Hitzaldia. *Edoskitzearen lehen egunak*. Maribel Lopez izango da hizlaria, Osi Debabarrenako pediatra erizaina eta edoskitze aholkularia. Kultur Etxeko sotoan.

## 6 EGUENA

**20:00** Pintxo-concert. Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta.

## SAN MIGEL JAIK

### 30 BARIKAKUA

**19:00** Gazteak elkartzea. Kalamua elkartean.

**21:00** Haritz EDTren ekitaldia Borja Uzuriagaren oroi-menez.

**22:30** Gazteen afaria

**Ondoren**, Fan&Go taldearekin erromeria.

### 1 ZAPATUA

**13:00** Ume jolasak.

**Jarraian**, umeen bazkaria.

**Ondoren**, umeentzako parkea.

**18:00** Bolo txapelketa

**21:00** Bertso afaria: Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano.

**Ondoren**, erromeria

### 2 DOMEKA

**11:30** Meza.

**Jarraian**, Baltzola anaiak trikitilariak

**12:00** Artzain-txakur txapelketa.

**14:30** Bazkaria.

**17:00** Idi-demak.

**Ondoren**, Baltzola anaiak trikitilariak

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Guardiak

#### 09:00 - 22:00

23 Barixakua YUDEGO  
24 Zapatua ORUESAGASTI  
24 Zapatua ETXEBERRIA  
(9:00-14:00)

25 Domeka ORUESAGASTI  
26 Astelehena BARRENETXEA  
27 Martitzena IBANEZ  
28 Eguaztena GARITAONAN.  
29 Eguena ETXEBERRIA  
30 Barixakua FERNANDEZ

#### 22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1 Tel.: 943 740 140

#### 00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19  
Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Zinea (Herriko Antzokian)

### BEN HUR

30 barixakua, 22:15  
1 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
2 domeka 19:00  
3 astelehena 21:30

### GOAZEN

2 domeka, 16:30

**IRAZABAL**  
clínica dental

**Familiaren Osasuna**  
Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako  
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal    Eta twitterren: @Clinicairazabal

FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio oso onak. GALDETU

**IRAZABAL**  
clínica dental    Julián Eteberria, N° 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## Uztailean eta abuztuan hildakoak

- |   |  |  |
|---|--|--|
| - <b>Pedro Aginako Isusi</b><br>79 urte, uztaileak 2          | - <b>Ricardo Garate Zubiaurre</b><br>57 urte, uztaileak 20       | - <b>Jose Agirregomezkorta Kareaga</b><br>69 urte, abuztuak 16 |
| - <b>Juanita Moreton Fernandez</b><br>84 urte, uztaileak 7    | - <b>Marcelina Aranzamendi Txurruka</b><br>83 urte, uztaileak 21 | - <b>Adolfo Lobete De la Horra</b><br>86 urte, abuztuak 22     |
| - <b>Jose Manuel Juaristi Alkorta</b><br>62 urte, uztaileak 9 | - <b>Andoni Agirregomezkorta Laka</b><br>51 urte, uztaileak 26   | - <b>Roke Arregi Garate</b><br>94 urte, abuztuak 22            |
| - <b>Manuel Romero Bautista</b><br>74 urte, uztaileak 11      | - <b>Brigida Rebollo Rodriguez</b><br>86 urte, uztaileak 30      | - <b>Antonio Gorriti Agirre</b><br>92 urte, abuztuak 26        |
| - <b>Asier Del Pino Cruz</b><br>36 urte, uztaileak 13         | - <b>Josefa Baskaran Balentziaga</b><br>86 urte, abuztuak 8      |  |
| - <b>Aldo Galarraga Arostegi</b><br>69 urte, uztaileak 13     | - <b>Juan Angel Iriondo Kortabitarte</b><br>80 urte, abuztuak 9  |  |

## Consuelo Garcia Isasti

2016ko irailaren 25ean hil zen,  
72 urte zituela. Sendiak bihotzez  
eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara  
agertu izana ere.



## ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

**KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.**  
**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.**  
**ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK**

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR  
Telefonoak:  
943 741 327 (24 orduz)  
Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)



Julen Ansola

## Eider Iriondo



ohartuko gara horretaz.

Oroitzen dut orain dela urte batzuk Itzurungo hondartza behean utzi eta nola etortzen nintzen baselizako balkoi honetara, arnas bila, itsasoa ikustera, olatuak nola apurtzen ziren ikustera, eta bide batez, nire begiak argiziatzera. Hondartza jendez lepo egon zitekeen, baina ermita hau beti zegoen hutsik; Telmo nire zain egoten zela zirudien.

Orain, ordea, ezinezkoa da hemen bakarrik egotea. Filma batek ospe gehiago eman

Azken urteetan turismoak indar handia hartu du gurean. Ermita honetara gerturatzen bagara, berehala

dio ermita honi eta horrek eragina izan du. Nabari da herrian turista gehiago dagoela.

Bidaiari horiek barnealdera ere erakarri ahal ditugu. Eta hirietara doazenak ere erakarri ditzakegu. Elgoibarren gastronomia, kultura, natura, kirola eta historia nahierara uztartu ditzakete, dena eskura eta dena gertu eduki dezakete. Baina zer estrategia erabili ahal dugu hau dena saltzeko? Nolako turistak nahi ditugu ekarri?

Alde batetik, lehendabizi, ondo ezagutu beharko ditugu ezagutarazi nahi ditugun puntuak. Toki ugari, asko masifikatu ditugu iraganean eta nago hori ez dela bide egokia.

Guk geuk ezagutzen ez ditugun paraje asko dauzkagu inguruan, esploratzeko, konkistatzeko. Bistakoa da askotan gure lurretan

bisitari papera hartzen dugula.

Turista mota da garrantzitsuena, ez hainbeste kopurua. Herriei bizia ematen dietenak.

Turismoaren aldeko apustua egin dezake Elgoibarrek ere bere industriari indarra ematen jarraitu bitartean. Eta gero erakarri. Biluztu gabe, erakarri bisitaria.

Laster telesail ospetsu bat grabatuko dute leku honetatik metro batzuetara, Deba eta Zumaiara arteko marearte zabalgunean hain zuzen ere. Ezaguna da lehen ere mundu mailako erreferentzia geologikoa izateagatik, baina denok dakigu telebistaren indarra bortitza dela. Eta eragina izango du, eta seguru kostalde honek bisitari gehiago izango dituela aurrerantzean, baina dena gure esku dago; nola saltzen dugun izango da gakoa.

*'Zer estrategia erabili ahal dugu saltzeko? Nolako turistak nahi ditugu?'*



**PARTE HARTZEA**

IRA 1 - URR 14

**PRESTATZEA**

URR 15

**ONARTZEA**

AZA

**KONTU EMATEA**

ABE

**Aurrekontu Irekiak 2017.**

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaituz proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

**Orain Gipuzkoa. Orain zu.**



[www.gipuzkoa.eus/partaidetza](http://www.gipuzkoa.eus/partaidetza)

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE

943 112 111 • [partaidetza@gipuzkoa.eus](mailto:partaidetza@gipuzkoa.eus)

 @OrainGipuzkoa  OrainGipuzkoa

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

# URRIAK 1, ZAPATUA

AZKUE (SAN ROKE) AUZOKO BERDEGUNEAN, ELGOIBAR

**SAN**  
**Rock**  
FESTIBALA

# Bertan behera

16:00etan, Inazio Bereziartua Musika Eskolako rock taldea

17:30ean, Belceblues

19:00etan, Jon Basaguren (Izaki Gardenak)

21:30ean, Kokein

Antolatzailea:



Errealak:



KULTURNA  
elgoibar



Laguntzaileak:



Deialak:

[ ] Hyggelig Study  
Barcelona